Elorrioko udala

Titularra: KIROLA ETA GAZTERIA SAILA
Gaia: GAZTEGUNEA ESLEITZEKO LIZITAZIOA
Hasiera data: 2021eko Urrian.

ELORRIOKO GAZTEGUNE ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1. HELBURUA

Plegu honen helburua honakoa da: Elorrioko udalerrian gaztetxoei begira antolatutako GAZTEGUNE zerbitzua aisialdi eskaintza kudeatzeko baldintza teknikoak arautzea.

GAZTEGUNE zerbitzuarekin aisialdi eskaintza egonkorra, etengabea eta koherentea zuzentzen zaie gaztetxoei, euren garapen osoa, gozamena eta autonomia pertsonala bilatzen dituena, euskara hutsean izango dena eta emakumeen eta gizonen arteko berdinasuna eta inklusioa-integrazioa ikuspegiak txertatuko dituenak.

2. TITULUA. KONTRATUARI BURUZ ORO HAR

Kontratuaren exekuzioa zerbitzuaren planifikatze, antolatze eta kudeaketa lanetan gauzatzen da, plegu honetan ezarritakoarekin bat etorrita eta udaleko Kirola eta Gazteria Zerbitzuaren zuzendaritzapean. Zerbitzua aurrez aurre emango da San Juan kaleko 19. zenbakiko udal-jabetzako lokalean, aipatutako zerbitzua, Udalak egokitzat jotzen badu, beste kokaleku batera lekualdatu ahal izango duelarik. Era berean, egokitzat jotzen diren udalerriko tokietan ere (aire zabaleko espazioak edo beste udal-instalazio batzuk) zein Elorrioko udalerritik kanpoko lekuetan hainbat jarduketa egiteko aukera egongo da.

Osagarri eta gehigarri gisa, zerbitzu telematikoak emango dira kontratuaren xede diren gazteekin komunikazio arina izateko, zerbitzuaren xede den sektorearen egungo harreman-ereduetara egokitzeko.

2.1. Zerbitzuaren ezaugarriak

- GATEGUNEA zerbitzu publikoa da, herriko gaztetxoei zuzendutakoa.
- Zerbitzuaren eskaintza hartzaileen beharretatik eta interesguneetatik abiatuta osatuko da eta haien parte hartzea sustatuko da antolatze maila guztietan.
- Zerbitzuaren eskaintzan lokalaren barruan zein aire zabalean burutzeko jarduerak egongo dira.
- Zerbitzua tresna eraldatzailea, orekatzailea, integratzailea eta hezitzailea da, bai eta parte hartzean eta aukeretan oinarritutako espazio komunitarioa ere.
- Zerbitzuak modu aktiboan bilatuko du tokiko eragile eta kolektiboekiko lankidetza, udal sail ezberdinetatik Elorrioko herritarrek osatutako taldeetaraino.

2.2. Zerbitzuaren hartzaileak

GAZTEGUNEA zerbitzuaren hartzaileak izango dira Elorrioko udalerriko DBHko 1. mailatik 4.era bitarteko ikasturteetan dauden nerabeak, ohiz kanpoko kasuetan zabaldu daitekelarik (LHko 6. mailako gazteei zerbitzuaren aurkezpena egitea, adibidez).

Adin tarte zabala denez, egokitzat jotzen diren txandak edo taldeak planteatu ahalko dira, beti ere, Udalarekin aldez aurretik adostuta.

Gainera, zuzenean zerbitzuen erabiltzaile izan ez arren, zeharkako hartzailetzat joko dira gaztetxoen heziketaren ardura konpartitzen duten helduak ere (gurasoak, hezitzaileak, irakasleak, e.a.).

Zerbitzuetako hartzaileek, finkatutako helburuei eta eskainitako programari jarraituz, eskubidea dute zerbitzuak behar bezala eta modu eraginkorrean jasotzeko.

Zerbitzuetako hartzaileek beren eskura jarritako ekipamendua eta materiala helburuaren arabera errespetatu eta erabiltzeko betebeharra dute.

2.3. Zerbitzuaren helburuak

Zerbitzuak hartzaileen beharrei erantzutea du helburu nagusi, behartzat honako hauek hartuta:

- Gazte-gunea herriko gaztetxoen topaleku euskalduna izatea.
- Haurrak eta nerabeak aisialdiaz era aktiboan, parte-hartzailean, sortzailean eta osasungarrian gozatzea.
- Haur eta nerabeentzat esanguratsuak izango diren harreman pertsonalak eraikitzeko gune aproposa eta aukerak eskaintzea, adin berekoekin zein lan taldeko helduekin.
- Aisialdia euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzea eta euskal kultura sustatzea.
- Nesken eta mutilen arteko aukera berdintasuna ziurtatzea.
- Etorkinen parte hartzea eta integrazioa sustatzea.
- Aisialdi eredu kontsumistari alternatibak eskaintzea.
- Balioen heziketa sustatzea: errespetua, bizikidetza, elkartasuna.
- Haur eta nerabeek jarduera berriak ezagutzeko eta parte hartzeko aukera eskaintzea eta baita zaletasunak garatzeko ere.
- Behar bereziak dituztenei zerbitzuak erabiltzeko aukera erraztea.
- Adin talde berdinekin lan egiten duten herriko eta inguruko eragileekin eta zerbitzuekin sare lana bultzatzea. Era berean, udalerriko bestelako eragileek garatzen dituzten jarduerak ezagutzea.
- Eskura jartzea Elorrion garatuko diren jarduera ezberdinen gaineko informazioa.
- Harreman afektibo-sexualen inguruko Informazioa eskuragarri izatea.
- Droga-menpekotasunaren inguruko Informazioa eskuragarri izatea.
- Eskura jartzea ikasketa ezberdinen gaineko informazioa.

3. TITULUA. ZERBITZUAREN KUDEAKETARI BURUZ

Zerbitzuaren kudeaketa lana Udalak finkatuta dituen helburuak lortzera bideratuko du hartzaileak.
Zerbitzuaren entitate arduradun nagusia Elorrioko Udaleko Kirola eta Gazteria Zerbitzua da.
Oro har, Udalak zehaztutako orientazioak eta arauak beteko ditu enpresa esleipendunak. Orientazio horien xehetasunak 3. atal honetako hurrengo puntuetan garatuta azaltzen dira.

3.1. Zuzeneko arreta

GAZTEGUNEA da gaztetxoei arreta emateko gune nagusia baina haurrek eta nerabeek erabiltzen dituzten beste gune batzuetan ere emango da zerbitzua: kalea, lokalak, naturguneak, sare sozialak…

Eskaintza zehatza erabiltzaileen behar eta interesguneetatik abiatuko da. Haur eta nerabeen interes eta gogoak azaltzeko gune gisa asanblada lehenetsiko da, baina horiek detektatzeko langileek eskura duten beste zenbait bide ere (elkarrizketak, behaketak, komunikabideak, ikerketak,…) erabiliko dituzte.

Haur eta nerabeen parte hartzea baina ez da mugatuko euren interes eta gogoak azaltzera, baizik eta zerbitzuetako antolaketa fase guztietan sustatuko da -era progresiboan- parte hartzea: planifikazioan, gauzatzean eta ebaluazioan.
Era berean, zerbitzuen funtzionamendu egokirako ezarri beharreko bizikidetza arauak erabiltzaileek eta lan taldeak elkarrekin eztabaidatu eta adostuko dituzte.

Antolatutako ekintzez gain, antolatu gabeko uneak ere aurre ikusiko dira, zeintzuetan haurrek eta nerabeek modu askean jolastu, hitz egin edo atseden hartzeko aukera izan.

Harreman hezitzailea ezinbesteko erreminta izango da eskaintza antolatzerakoan, bai langilearen eta erabiltzailearen artekoa eta baita erabiltzaileen artekoa ere. Besteak beste, eskaintzak honako hauek hartuko ditu barne: antolatu gabeko jarduerak, antolatutako jarduerak, lantegiak, ikastaroak, proiekzioak, ikuskizunak, hitzaldiak, irteerak, herriko ekimenetan parte hartzea (jaiak, txapelketak, elkarteen egitarauak,…) eta abar.

Era berean, sustapen lana egingo da haur eta nerabeak herritar aktibo izan daitezen, gizartean jarrera

arduratsuak eta kritikoak har ditzaten (kontsumoaren aurrean, ingurumenarekiko,…). Ildo beretik, herri mailako beste elkarte eta ekimenekiko harremana eta elkar ezagutzea sustatu eta errazteko ahalegina egingo da.

Helburuen atalean zehaztu bezala, euskara da zerbitzuetako arreta eta lan hizkuntza. Logikoa denez, exijentzia maila malgua izango da, erabiltzaileen ezagutzaren araberakoa. Ildo beretik, euskararen aldeko jarrera positiboak eta euskal kulturaren aldeko lana bultzatuko da era iraunkorrean.

3.2. Barne lana

Zuzeneko arretaz gain, zerbitzuak bere lana planifikatu, komunikatu eta ebaluatuko du. Eta barne lan hori burutzeko uneak aurreikusi behar dira lana antolatzerakoan.

Lanaren fase bakoitzean (plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa) eta komunikazioan generoaren azterketa integratuko da; hau da, besteak beste, generoaren araberako ordezkaritza orekatua duten lantaldeak sustatuko dira, emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzen duten jarduerak programatuko dira, pertsonei buruzko datuak sexuaren arabera bereizita jasoko dira, jasotako datuak interpretatzeko genero-adierazleak sortuko dira, irudiak eta hizkuntza modu ez-sexistan erabiliko dira eta berdintasuna sustatzeko xedez, besteak beste.

3.2.1. Planifikazioa

Planifikazioaren bitartez, helburuak lortzeari begirako jarduerak, estrategiak eta ekimenak zehaztuko dira. Horretarako, zerbitzuko aurrekariak hartu beharko dira kontuan: aurreko ebaluazioak, udaleko Kirola eta Gazteria sailak zehaztutako lehentasunak, erabiltzaileen proposamenak eta balioespenak, e.a.

Zerbitzuan hiru planifikazio egingo dira: ikasturtekoa, hiru hilekoa eta gabonetako, aste santuko eta ikasturte amaierako oporraldietako ekintza berezietakoa. Plangintza kirol eta gazteria teknikariarekin adostu beharko da.

3.2.2. Ebaluazioa

Zerbitzuari eta inguruneari buruzko informazioa lortzeko eta prozesatzeko egingo den guztia barne hartuko du ebaluazioak. Jarduketa ziklo berri bati aurre egiteko deskribapenak, azterketak eta balioespenak lortzea da informazio horren helburua, ziklo berri hori ahalik eta ondoen planifikatu ahal izateko.

Erabiltzaileen parte hartzea funtsezkoa izango da zerbitzuen ebaluazioa egiteko.

Ebaluazio-txostenetan informazio hau jaso beharko da: datu kuantitatiboak (bertaratzea, jardueretako parte hartzea, baliabide materialak,…), datu kualitatiboak (haur eta nerabeen asebetetze maila, jarrerak, balioespenak…) eta zerbitzuak hobetzeko proposamenak.

Ebaluaziorako momentu ezberdinak aurreikusiko dira: hilero, hiru hilekoa eta urtekoa. Ebaluazio hauek enpresa edo eragile prestatzaileak astero egingo duen ebaluazio jarraitua hartuko dute abiapuntu moduan. Hilero, edo beharrezkoa ikusten den aldikotasunarekin, Udalak kontratuko arduraduna zehaztutako pertsonarekin harremana garatuko da zerbitzuaren jarraipena egiteko. Hiru hilean behin, ebaluazio txostenak aurkeztuko dira udalean, eta dagozkien balioespenak egin ondoren, hurrengo hiru hilekorako plangintzak zehaztuko dira elkarlanean. Gainera, hiruhilero, zerbitzuaren adjudikazioa hartu duen enpresako arduradunek aukera izango dute dagokion informazio batzordera joateko zerbitzuaren gaineko informazioa emoteko eta hurrengo hiruhileko jardueren gaineko informazioa emoteko.

Urteko txostenak ikasturte bukaeran aurkeztuko dira.

Kultura Batzordeak egingo du zerbitzuaren jarraipena.

3.2.3. Koordinazioa

Zerbitzuen martxa egokirako derrigorrezko eginkizuna dugu koordinazioa. Izan ere, haurren eta nerabeen beharrak eta interesak anitzak izanik, horiei erantzuteko arlo eta eragile ezberdin askorekin batera elkarlanean aritu beharko da.

3.2.3.1. Barne koordinazioa

Zerbitzuko lan taldea bildu egingo da zerbitzuaren jarraipena egiteko. Barne komunikazioari arreta berezia eskainiko zaio eta zerbitzuetako langile guztiei dagokien zerbitzuan kokatzeko eta lan egiteko beharrezko informazioa emango zaie.

3.2.3.2. Koordinazioa Udalarekin

- Premiazkoa denean telefonoz, posta elektronikoz edota zerbitzuko jarraipen bilerez, udaleko kirola eta gazteria teknikariarekin. Beharren arabera, udaleko beste sail batzuekin ere bilduko dira.

  - Hilero zerbitzuaren jarraipenerako bilerak egingo dira gazteria eta kiroleko teknikariarekin. Beharren arabera udaletxeko beste alorrekin biltzeko aukera egongo da.
- Hiru hilean behin, zerbitzua ebaluatzeko bilera egingo da, zerbitzuko koordinatzailea eta langileak, udaleko kirola eta gazteria teknikariarekin.

3.2.3.3. Beste eragile batzuekiko koordinazioa

- Haurrekin eta nerabeekin lotura duten eta zerbitzuen lanerako interesgarriak diren eragileekin (gurasoak, herriko kultura eta aisialdi elkarteak, e.a.) koordinazioa eta elkar-lana sustatuko da, bestelako eskaintza bideratzeko.

3.2.4. Zerbitzuaren zabalkundea

Udala arduratuko da zerbitzuaren gaineko informazioa zabaltzeko argitalpenaz. Zerbitzu bakoitzaren zabalkundeaz esleipenduna arduratuko da, beti ere, udalaren irizpideak jarraituta eta Kirola eta gazteria sailarekin adostuta. Zerbitzuen inguruko informazio orokorra (helburuak, lan ildoak,…) zein zehatza (egitarauak, jarduerak, ordutegiak,…) eskainiko zaie hartzaileei eta eragileei, aldez aurretik esleipendunak eta udalak adostutako zabalkunde plan bati jarraiki. Plan horretan zehaztuko dituzte zein informazio zabaldu noiz (ikasturte hasieran, opor garaian, data zehatzetan,…), zein helbururekin (erabilera sustatzea, egitarauen berri ematea,…) eta zein bidetatik (komunikabideak, esku orriak, blogak, sare sozialak,…).

3.2.5. Etengabeko prestakuntza

GAZTEGUNEko langileen etengabeko prestakuntza esleipendunaren erantzukizuna izango da.

3.2.6. Zehar-lerroak

3.2.6.1. Euskara

Euskara izango da GAZTEGUNEko hizkuntza, bai laneko hizkuntza moduan (harremanetarako, koordinaziorako, antolatzeko,…) eta baita hartzaileei egingo zaien zuzeneko harrerarako ere. Horretarako, beharrezkoak diren baldintza guztiak bermatuko dira: hezitzaile elebidunak, euskarazko materiala, erabilera sustatzeko planifikazio lana,… Ekipamendu eta erabiltzaile bakoitzaren hizkuntz errealitatea kontuan hartuta, planak eta estrategiak inplementatuko dira euskararen erabilera sustatzeko, euskararen aldeko jarrerak bultzatzeko eta euskal kultura ezagutzera emateko.

3.2.6.2. Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna

GAZTEGUNEan nesken eta mutilen arteko aukera berdintasuna errealitate bilakatzeko etengabeko lana egingo da, besteak beste: neskentzat eta mutilentzat interesgarria den eskaintza egingo da, debateetan eta erabakiak hartu behar direnean nesken presentzia eta parte hartze aktiboa bultzatuko da, espazioa banatzeko orduan, hedapen materialean azalduko diren irudiak aukeratzerakoan, hizkuntza ez sexista erabiltzean, data zehatzetan (martxoak 8, maiatzak 17, azaroak 25...) jarduerak sustatuko dira...

3.2.6.3. Inklusioa-integrazioa

Elorrioko gaztetxoen artean dagoen aniztasuna kontuan hartuta, zerbitzuak arreta berezia eskainiko die

premia bereziak dituzten pertsonei (gizartean zailtasunak dituztenak, urritasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoak...).

3.2.6.4. Herriko eragileekin elkar-lana

Elorrion dauden elkarte eta kolektiboen kopurua eta aniztasuna kontuan hartuta, horien ezagutza eta hauen eta zerbitzuaren erabiltzaileen arteko elkarlana bultzatuko da.

4. TITULUA. AZPIEGITURAK ETA BITARTEKO MATERIALAK

4.1. Azpiegiturak

Kontratua indarrean dagoen bitartean, udalak zerbitzua eskaintzeko lokalak jarriko ditu.

Plegu honetako 2. puntuan azaldu bezala, San Juan kaleko 19. zenbakiko Udalaren erabilerako instalazioak jarriko dira zerbitzuaren eskura. Lokal horietako funtzionamendu eta mantentze gastuak (garbiketa, argindarra, ura, gasa, zaborra…) Udalaren kontura izango dira. Gainera, Udalarekin adostuta, beste udal-instalazio batzuk erabili ahal izango dira zerbitzua emateko (kirol-instalazioak, etab.).

Antolatzen diren eta gastua eragiten duten ezohiko jarduerak, lehentasunez, doakoak izango dira. Udalaren eta enpresaren artean adostuta kobratu edo fidantzak ezarri ahal izango dira.

Era berean, zerbitzuak modu egokian eskaini ahal izateko behar den oinarrizko ekipamendua ere Udalak jarriko ditu. Horiek guztiak inbentario batean jasoko dira eta kontratuak dirauen bitartean erosten diren elementu inbentariagarriak ere gehitzen joango dira.

Utzi diren instalazio eta materialak egoera onean eduki behar dira eta ondo zaintzeko bitartekoak erabili.

4.2. Bitarteko materialak

Zerbitzuetako ekintzak burutzeko behar den materiala enpresa esleipendunak ipini behar du, eta erosi behar izanez gero, gastuak enpresaren kontu izango dira.

5. TITULUA. ZERBITZUARI ATXIKITUTAKO GIZA BALIABIDEAK

5.1. Giza baliabideak

Zerbitzua era egokian eskaini ahal izateko, lan talde egoki bat jarriko du esleipendunak. Gutxienez, langile hauek arituko dira zerbitzuan:

- GAZTEGUNEA: astean hiru pertsona aurreikusi dira, guztira, bakoitza 10 orduko lanaldiarekin. Horietako 8 ordu gutxienez zuzeneko arreta emateko izango dira eta gainerakoak, koordinazio eta prestaketa orduak (barne lana).
- Horiez gain, zerbitzuan koordinatzaile bat arituko da, egunean 1,5 orduko lanaldiarekin, astean 7,5 orduko lanaldiarekin.
- Prezioaren barruan, ekintza berezietarako orduak ere aurreikusi dira: egun pasak, gaua pasatzeko irteera/k, gabonetako eta pazko asteko ekintza bereziak, baita hauek prestatzeko orduak ere.
- Esleipendunak kontratatuko du lan taldea eta sor daitezkeen ordezkapenak bermatuko ditu; ordezkoek titularren baldintza berberak bete beharko dituzte.
- Hasierako lan taldean gerta daitekeen edozein aldaketak Udalaren oniritzia izan beharko du.
- Lan taldea bi sexuetako pertsonez osatuta egotea lehenetsiko da.

5.2. Langileen funtzioak

Ondoko funtzio hauek bete beharko dituzte zerbitzuko arreta zuzeneko langileek eta koordinatzaileek:

5.2.1. Arreta zuzeneko langileek

5.2.1.1. Zuzeneko arreta.

- Haurrei eta nerabeei arreta pertsonalizatua eskaintzea, beraien beharrak eta eskariak

ezagutzea eta harreman positibo bat eraikitzeko lana egitea.

- Erabiltzaileen arteko harremanak sustatu eta beharrezkoa denean bitartekaritza lana egin.
- Zerbitzuaren xede diren jarduerak dinamizatzea.

5.2.1.2. Barne lana

- Zerbitzuaren planifikazioan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea, bai egunerokoan eta baita aldizkakoan ere.
- Koordinazioaren atalean, plegu honetan zehaztutako bileretan (barne mailan, udalarekin, beste eragile eta zerbitzuekin) parte hartzea.
- Zerbitzuaren zabalkundean parte hartzea.
- Etengabeko prestakuntza saioetan parte hartzea.

5.2.2. Zerbitzuko koordinatzaileek

- Zerbitzu bakoitzeko funtzionamendua eta antolaketa orokorra koordinatzea.
- Zerbitzuaren planifikazioan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea.
- Zerbitzuetako langileei egitarauak eta ekintzak burutzeko laguntza teknikoa eta materiala eskaintzea.
- Zerbitzutik burututako ekimenak, egitarauak eta ekintzak ebaluatzeko informazioa eta balorazioak jaso, gainontzeko langileekin batera landu eta txostenak Udalari aurkeztu.
- Ebaluaziotik ondorioztaturiko hobekuntza proposamenak egitea.
- Koordinazioaren atalean, zehaztutako bileretan (barne mailan, udalarekin, beste eragile eta zerbitzuekin) parte hartzea.
- Zerbitzuen inguruko zabalkundeaz arduratzea, udalaren irizpideak jarraituta Berdintasun sailarekin adostuta.
- Zerbitzuko lan taldearen prestakuntza iraunkorrerako plangintza koordinatzea.
- Zerbitzuaren eta beste udal sail zein herriko eragileen arteko elkarlana eta zubi lana sustatzea.

5.3. Langileen prestakuntza baldintzak

Zerbitzuan jardungo duten langileek ondoko prestakuntza baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Erdi zein goi mailako titulazioa. Hobetsiko da Gizarte Hezkuntza Gradua edo Heziketaren zein Gizarte Zientzien arloan erdi zein goi mailako beste titulazioa (magisteritza, pedagogia, psikologia, soziologia…).
- Gaiarekin lotutako formazio ikastaroak izatea eta, modu berezian, hezkidetzarekin lotutakoak.
- Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurriak, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu behar dituzte hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuaren izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu behar dute langileek.

6. TITULUA. ZERBITZUAREN EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK

GAZTEGUNEA zabalik egongo da urria eta ekaina bitarteko ostiral eta larunbat arratsaldetan. Neguko eta udako ordutegia izango ditu, esleipendunak Udalarekin adostu beharko duena. Gerta daiteke egunen batean ekintza bereziren bat antolatzea eta zerbitzua egun osorako luzatzea. Egutegi eta ordutegi horiek aldatu ahal izango dira, egitarau bereziak antolatzen direnean. Edonola ere, aldaketak Udalarekin aldez aurretik adostu beharko ditu esleipendunak. Zerbitzua ohiko moduan ematen den bitartean (jarduera berezien barruan ez dauden ostiral eta larunbatetan), zerbitzua emateko ordutegia murrizteko aukera egongo da, eta ematen ez diren orduak jarduera bereziak indartzeko erabiliko den ordu-poltsa batera igaroko dira.

Gabonetan eta Aste Santuan ere, jai egunak salbu, zabalik egongo da GAZTEGUNEA. Garai hauetan egitarau bereziak antolatuko dira, opor garai bakoitzari egokituak.

7. TITULUA.- GAZTEGUNE ZERBITZUKO TARIFAK

GAZTEGUNEA zerbitzua erabiltzeagatik, aldiz, ez dago ikasturteko tarifarik ordaindu beharrik.

Antolatzen diren jardueretan parte hartzeko, oro har, ez zaie inolako ordainketa gehigarririk eskatuko parte hartzaileei.

Hala ere, zenbait kasutan, kontratuaren kostu finkotik igotzen diren ez ohiko jarduerak antolatzen direnean (irteerak…) prezio bat kobratu ahal izango da, beti ere, Udalaren oniritziarekin. Era berean, aparteko jarduera horietarako, inskripzio-fidantza bat ezarri ahal izango da, Udalarekin adostuta.

8. TITULUA. ZERBITZUAREN IKUSKAPENA

Udalak zerbitzuarekin zuzenean lotutako jarduerak ikuska ditzake, esleipendunaren betebeharrak egiaztatzeko.